

## 91. NAO - 2012ko maiatzaren 15a

### 10. ORDENANTZA

#### **ORDENANTZA FISKALA, ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIAK EDUKITZEKO LIZENTZIAN TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Oinarria.

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

#### **Zergapeko egintza.**

2. artikulua. Zergapeko egintza da zerbitzu tekniko edo administratiboak egitea, arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak emateko.

#### **Tasen sorrarazpena.**

3. artikulua. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak emateko tasa sortuko da eskaera aurkezten den unean, eta lizentzia ez da tramitatuko lehenago tasa hori ordaintzen ez bada.

#### **Subjektu pasiboak.**

4. artikulua. Ordenantza honetan aipatzen diren lizentziak emateko tasak ordaindu beharko dituzte arriskutsu gerta daitezkeen animalia baten jabe edo edukitzaile diren guztiek, betiere Udalaren osasunari buruzko ordenantzan Barañaingo udalerrian animaliak edukitzeari buruz egiten den sailkapenaren arabera.

#### **Tarifak.**

5. artikulua. Ordenantza honen eranskinean heldu dira kasu bakoitzean aplikatu beharreko tarifak.

#### **Kudeaketa eta diru-bilketa arauak.**

6. artikulua. Arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak emateko tasak, ordenantza honetan aipatzen direnak, Udalaren diru-bilketa bulegoan ordaindu beharko dira, Herriko Etxean baitago, edo udaltzaingoan edo banku bidez ordaintzeko aukeran ematen diren bertzelako bideak erabiliz.

### 2017KO TARIFEN ERANSKINA – 20. NAON ARGITARATUA 2017KO URTARRILAREN 30A

I. epigrafea–Arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak ematea.

Tarifa, lizentzia edo haren kopia bakoitzeko: 42,00 euro.